



~~~~~  
*Lanak hasi  
dira Barbadun  
ibaiko  
pasealekuan*

~~~~~  
***2014ko udal-
inbertsioen
programa***

/2. orria

~~~~~  
***Udalbatza,  
energia  
aurreztearen  
alde***

*/3. orria*

~~~~~  
***Hiru gune
eraberritu
dira Muskizko
erdigunean***

/5. orria

~~~~~  
***Muskizko  
Emakumeen  
Elkartea, garai  
berriekin bat***

*/6. orria*

## Editoriala

### Beti aurrera

Baten batek aukera badu bere herria hobetzeko, jaio den eta bizi nahi duen herria eraberritzeko, nekez azal daitekeen poza sentituko du bere barruan. Alkatetzan nagoenez, aukera izan dut Muskizko herritarren bizitza-kalitatea hobetzen lan egiteko, ondoan dudatan taldearekin batera. ZINTZOTASUNA, LANA ETA GARDENTASUNA abiarutuz hartuta, betiere.

Gizakia -izatez- inguruan dituen arazoak konpontzen saiatzen da, aldame-nekoak dituen kezak aintzat hartu gabe. Alabaina, alkate batek eta bere taldeak (taldeko eta udalbatzako kide batzuek, udal-langileek, elkarteek, herritarrek...) behar izan guztiak hartu behar dituzte aintzakotzat, hori baita beraien lana. Ildo horretan, egin beharreko jardueren lehentasunak finkatu behar dituzte, eskura dauden baliabideak kontuan izanik -ekonomikoak,

## “Muskizek ereduzko udalerrria izan behar du

materialak, giza baliabideak...-, ahalik eta lagun gehien arazoei irtenbidea aurkitzeko. Oso zaila da guztion behar izanak betetzen saiatzea, are gehiago kontuan hartzen badugu herritarren behar izan asko kontrajarriak direla. Gaitza da familia, erkidego edo elkarte batean denak bat etortzea... eta are zailagoa 7.600 laguneko talde batean.

Muskizek aurrera egin, eta ereduzko udalerrria izan behar du. Hala ere, horretarako, arriskatu, erabakiak hartu, eta agertzen diren arazoei konponbidea aurkitu beharko diegu, irtenbidea guztion gustukoa ez bada ere. Izan ere, ekiteko ausardia izatea da garaipen guztien abiaburua, eta Muskizko herritarrek merezi dute udalerrri hobea izatea. Bistan da erabakiak ez direla arrapaladan hartu behar. Gogoeta egin behar dugu, norantz jo erabakitzeke. Herria hobetzeko, guztion parte-hartzea eta bat-etortzea lortu behar dugu, betiere, proiektuak gehiegi mantsotu edo geldiarazi gabe. Erabakirik txarrena hartu gabe uzten dena baita.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea

# 2014ko inbertsioak

## Lanak, enplegua eta jarduera ekonomikoa dinamizatzea

|                                                                          |           |
|--------------------------------------------------------------------------|-----------|
| Tokiko enplegu-plana eta jarduera ekonomikoa dinamizatzea                | 1.000.000 |
| Kiroldegiko hezetasuna kentzeko makina (igerilekuko mantentze-lanak)     | 120.200   |
| El Cruceko bainuak                                                       | 50.000    |
| Hirigintzako lanabesak eta tresnak                                       | 9.000     |
| Kultur etxeko suteen sektorizazioa                                       | 20.000    |
| Ortzeko karpa                                                            | 9.000     |
| Haur-aldagailuak                                                         | 8.000     |
| San Joan plazako zurezko zubia konpontzea                                | 17.424    |
| Informatikako ekipamendua                                                | 25.000    |
| Las Llosasko harri-lubeta egitea                                         | 30.713    |
| Hilerriko aldapa                                                         | 24.889    |
| Hilerriko eskudela                                                       | 4.500     |
| Caseriako hormigoiko zola                                                | 4.235     |
| Vía Chiquita bidea (Rigada - Cobaron)                                    | 76.876    |
| Molinillo bidea                                                          | 50.500    |
| Pobeña Mugarri bidea                                                     | 34.425    |
| Janeo bidea                                                              | 74.103    |
| Bide-seinaleak                                                           | 60.000    |
| Hilerriko parkinga asfaltatzea                                           | 18.000    |
| El Campoko (Santelices) igoerako espaloia                                | 30.000    |
| San Julian auzoa urbanizatzea                                            | 35.104    |
| Rigada plaza eta espaloia urbanizatzea                                   | 110.200   |
| Pantaila digitalak (herritarrentzako informazioa eta parte-hartzea)      | 100.000   |
| La Cabaña urbanizatzea Rigadan                                           | 52.000    |
| Hiri-altzariak                                                           | 30.000    |
| Pobeñako pasabidea (Itsasaldeko Zuzendaritzaren diru-laguntza)           | 110.000   |
| Pobeñako elkartearen lokala egokitzea                                    | 40.000    |
| Pobeñako aterpetxea egokitzea                                            | 28.000    |
| Puntu beltzak kentzea                                                    | 22.000    |
| Glorieta - Ikastolako kirol-aldea urbanizatzea                           | 84.700    |
| Udaltzaingoaren aretoko lanak                                            | 159.253   |
| Bideo-zaintzako kamerak (herritarren segurtasuna)                        | 90.000    |
| Edukiontzien finkagailuak jartzea (100), haizeak mugi ez ditzan          | 35.990    |
| Babes zibila (boluntarioen taldea)                                       | 10.000    |
| Itsaslur pasealekua egokitzea                                            | 101.640   |
| Ikastetxeetako baratze ekologikoak                                       | 64.000    |
| Cantarranako obrak (hezetasuna kentzea eta teiltua konpontzea)           | 140.000   |
| Meatzari zinema-aretoa digitalizatzea (beharrezkoa filmak proiektatzeko) | 54.000    |

## Saneamendu- eta hornidura-sareak

|                                                      |         |
|------------------------------------------------------|---------|
| Villanuevako (2. fasea) saneamendua                  | 104.743 |
| Hornidura-sarea (Memerea, Janeo, Mello eta El Valle) | 60.000  |
| Saneamendua (La Rabuda, La Campa eta Muskizko UM)    | 146.023 |

## Proiektuak

|                                                      |        |
|------------------------------------------------------|--------|
| Auzo-bideen eta herri-lurren inbentario topografikoa | 40.000 |
| Erakusketa-aretoa                                    | 7.000  |
| Glorieta                                             | 9.680  |
| Tenis- eta padel-pistak estaltzeko proiektua         | 25.000 |

## Energia aurrezteak

### (arabera 3 urteko epean berreskuratuko den inbertsioa)

|                                             |         |
|---------------------------------------------|---------|
| Argiteria publikoa / LED                    | 150.000 |
| Igerilekuko obra (kontsumo-eraginkortasuna) | 48.400  |
| Kiroldegiko eraginkortasun energetikoa      | 232.551 |
| Cantarranako eraginkortasun energetikoa     | 80.821  |

**Azken hiru ataletan sartutako proiektuak egiteko, diru-laguntzak eskatu zaizkie (175.000 euro) Ur Partzergoari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Energiaren Euskal Erakundeari.**



## Energia aurreztearen alde

**A**urreikuspenen arabera, Udalak 500.000 euro inguru aurreztuko ditu urtero, gastu arruntean eta CO<sup>2</sup> isurpenak gutxitzen, herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak murriztu gabe. Programa honetako proiektuak zenbait fasetan egingo dira. Ildo horretan, ekitaldi honetan, hainbat neurri hartuko ditugu: argiteria publikoaren eta udal-eraikinen barrualdeko argien %25 aldatzea eta LED teknologia jartzea, gasolio-galdaren %75 aldatzea gas naturalarekin ibil daitezen, telekudeaketako sistemak jartzea, eta udal-igerilekuko ur-kontsumoa murriztea. Zenbatespenen arabera, jarduera horiei esker, 145.000 euro aurreztuko ditugu ekitaldi honetan.

## Luzatu egin da droga-mendekotasunen prebentziorako programa

Udalak Droga-mendekotasunen Prebentziorako Erki-degoko programa esleitu dio Ortzadar enpresari, 2016ko martxora arte. Aldi horretarako aurrekontua 45.000 eurokoa (gehi BEZ) izango da. Era horretan, Muskizko Udalak Prebentzioko Programa horri eutsi nahi dio, azken 9 urteetan oso emaitza onak izan dituelako. Ikasleei, familei, eta oro har, erkidego osoari zuzenduta dago. Aurreko edizioetan egin diren jardueretan, 6 eta 18 urte arteko 2.000 haur eta nerabe inguruk hartu dute parte.



## Hobetzeko lanak bost haur-jolastokitan

Kale berri, Cobaron, Oiankas, Pobeña eta San Juan aldeko haur-jolastokiak hondatu egin dira denboraren poderioz, eta eraiki ziren garaian erabili ziren material batzuk zaharrituta daude gaur egun. Udalak 173.000 euroko inbertsioa egingo du, hobetze-lanak egiteko. Jarduera nagusiak hauek izango dira, besteak beste: gaur egun dauden hareazko azalerak kentzea eta koloretako kautxuzko zolak jartzea, eta dauden jolasak kentzea eta jolas moderno eta seguruagoak diren beste batzuk jartzea.

## Babes Zibileko taldea izango du Muskizek

Udaleko Larrialdietarako Planean jasota zeuden arloen artean, Babes Zibileko taldea sortzea zen hobetu beharreko alderdi bat. Hor-taz, Udalak kudeatze-lanei ekin die, herritar batzuek laguntza-talde bat eratu dezaten, beraien borondatez eta eskuzabaltasunez. Talde horrek ikuskizun publikoak antolatzen eta egoera meteorologiko desagokietan biztanleei laguntzen parte hartuko du. Herritarrek udal-arlo guztietan parte har dezaten bultzatzeko Udalak abian jarri dituen ekimenen artean sartuta dago proiektu hau.





## Carrascaleko bideko zorua berritu da

Muskizko Udalak hobetze-lanak egin ondoren, Carrascaleko bideak itxura berritua du. Hormigoizko bidea berritu da, denboraren poderioz oso hondatuta zegoelako. Horrez gain, errepide estua bost gune bereziz hornitu da, ibilgailuak gune horietara baztertu, eta, era horretan, kontrako norabidean doazenak igaro ahal izan daitezten.



## Makina eta jarduera berriak kiroldegian

Dantza aktiboa, body sculpt eta dantza sortzaileria dira, besteak beste, Muskizko kiroldegia eskaintzen dituen jarduera berrietako batzuk. Kiroldegia handitu ondoren, 400 metro koadro gehiago ditu orain; horrez gain, fitness aretoko gailu guztiak eraberritu dira. Horrenbestez, kiroldegia behar bezala prestatuta dago astialdiko jarduera gehiago antolatzeko, eta interesa duten kirolariei azken belaunaldiko makinak eskaintzeko, entrenatu ahal izateko.



## Villanuevatik gaztelura arteko bidea eraberritu da

Udalak 48.500 euro gastatu ditu Villanueva auzotik Muñatones gaztelura doan bidea eraberritzeko. Joan den urtarrilean egin ziren eraberritze-lanak, zehazki, hauek: errepideko 190 metro lineal zulatu, eta hormigoiz estali ziren, eta ertz-erretanak egin ziren euri-ura jasotzeko. Horrez gain, alde horretako saneamenduko kutxatila batzuk konpondu ziren.



## Herritarren segurtasunari buruzko jardunaldiak

Etxeetan izandako lapurretekin kezkatuak zeuden herritarrei erantzuteko Udalak antolatu dituen lehen jardunaldiak kultur etxean izan dira. Udaltzainek eta ertzainek argi utzi zuten Muskiz udalerrri segurua dela, eta, bertan, kaleko delinkuentzia-tasak nabarmen egin duela behera. Hala ere, ez zuten ukatu azken egunetan gora egin duela etxe jabe-dunetan izandako lapurreten kopuruak, beharbada egungo egoera ekonomikoaren ondorioz. Hortaz, gomendioa egin zuten muskiztarrei zuhur jokatzeko kalean edo saltokietan oporraldiko egunei buruz hitz egitean, senide edo auzokoen esku uzteko haiek ez daudenean postontzia husteko ardura, eta eskuraturako objektu baliotsuei buruzko argibiderik ez emateko.

### Kaleko lapurreten prebentzioa

- Ez utzi baliozko eser bistan.
- Behar duzun dirua bakarrik eraman, soinean; gehiago ez.
- Familiako adinekoek banketxera joan beharra badaukate, ahal izanez gero, joan beraiekin.
- Ez fidatu arreta erakartzen saiatzen diren ezezagunekin, edo gure ondoan, oso gertu jartzen direnekin. Sekula ez eman bizkarrik.
- Poltsak soinean gurutzatuta eraman; beti itxia eta ondo helduta.

### Lapurretan ari bazaikizu edo dagoeneko lapurtu badizute...

- Ez egin aurre lapurrei, eta saiatu lasai egoten.
- Beste norbaiten arreta erakartzeko aukera badaukazu, eskatu laguntza eta garrasi egin, baina, betiere, gure osotasun fisikoa arriskuan jarri gabe.
- Hartu gogoan lapurraren ezaugarri fisiko guztiak, zer arma erabili duen, nola hitz egiten duen, orbainik daukan... edo identifikatzen lagun dezakeen beste edozer.
- Lehenbailehen jakinarazi poliziari.

# Oinezkoen segurtasuna hobetzeko jarduerekin Muskizko erdigunea berrituko da



Muskizko erdialdean N-634 errepidea berriz urbanizatzeko eta trafikoa lasaitzeko proiektuaren bidez, erabat berrituko dira hornidura, saneamendu, edateko ur, argiteria, elektrizitate eta gasaren sareak, proiektuan sartuta dauden hiru inguruneetan: kultur etxean, ertzain etxean eta San Joan elizako bidegurutzean. Jarduera horietaz gain, hobetze-lanak egingo dira urbanizazioan, hiri-altzarietan eta lorategietan. Hasieran aurreikusitakoaren arabera, lan horiek egiteko 1.835.000 euro inguru behar dira. Kopuru horretatik, 720.500 euro bideratuko

dira egin beharreko aldaketen eragina izango duten hiru guneak osorik eraberritzeko lanetarako. Obren bidez, Muskizko Udalak era nabarmenean hobetu nahi du herri-tarren segurtasuna herriaren erdigunean. Udaltzatza lanean ari da erdiguneko errepideetako zirkulazioa berriz antolatzeko, eta kultur etxearen eta San Joan elizaren arteko aldean orain dauden eragozpenak gutxitzeko: 450 metro lineal inguru dira, ez dago oinezkoentzako pasabiderik, eta oinezkoak Antonio Trueba, Sobalbadun eta Memerea kaleetatik igaro behar dira, erdiguneko ekipamenduen alderdira iristeko.

## Hiru guneetan egin beharreko jarduerak: San Joan, ertzain etxe eta kultur etxe biribilgunea

|                                             |                        |
|---------------------------------------------|------------------------|
| 1. Saneamenduko sarea / drainatzea hobetzea | 246.127,83             |
| 2. Argiteria publikoa hobetzea              | 178.604,72             |
| 3. Edateko uraren sarea hobetzea            | 80.811,54              |
| 4. Sare elektrikoa hobetzea                 | 60.487,46              |
| 5. Gasaren sarea hobetzea                   | 11.404,33              |
| 6. Telefono-sareak hobetzea                 | 142.971,62             |
| 7. Lorategiak hobetzea                      | 50.987,81              |
| 8. Bide-seinaleak hobetzea                  | 79.261,85              |
| (obretako seinaleak: 46.468,84)             |                        |
| 9. Hiri-altzariak                           | 78.525,94              |
| 10. Hondakinak kudeatzea                    | 89.571,91              |
| 11. Obraren segurtasuna eta osasuna         | 20.100,93              |
| 12. Hiru guneetako urbanizazioa hobetzea    | 795.867,06             |
| <b>Obraren aurrekontua, guztira</b>         | <b>1.834.723,00</b>    |
|                                             | <b>euro, BEZ barne</b> |

## Obren helburuak

1. Herri-tarren bizitza-kalitatea hobetzea.
2. Herriko irisgarritasuna hobetzea.
3. Alde horretako bide-segurtasuna hobetzea.
4. Hiri-bilbearen izaera eta kalitatea hobetzea.



## Muskizek olio birziklatzeak duen garrantzia irakasten die umeei

Garrantzi handiko kontua da eraginkortasunez parte hartzea etxean erabilitako olio birziklatzen. Muskizko herritarrak arazo horretaz sentikor bihurtzeko, "Lar-jarekin bat egin" kanpaina iritsi da ikastetxeetara, ikasleei produktu horren berri eman nahian. Horrez gain, Udalak bost edukiontzi berri jarri ditu olio biltzeko, lehendik zeudenak baino %50 gehiago.



## 250 ikasle Zuhaitzaren Egunean

Muskizko ikastetxe guztietako 250 ikaslek hartu dute parte guztira Zuhaitzaren Eguna dela-eta antolatu diren jardueretan. Edizio honetan, zuhaitz gazteak landatu dira, kiroldegiko atletismo pista ondoko belardian, Malekoiko futbol-zelai inguruan eta Cas-taños errekaaren ertzetan, ikastola eta San Joan ikastetxearen parean.



## Elkarrizketa



### Muskizko Emakumeen Elkarteak, garai berriekin bat eginda

Muskizko Emakumeen Elkarteak 25 urte beteko ditu 2015. urtean. Gizartea asko aldatu da Elkarteak sortu zenetik, baina 350 bazkideek antzeko helburuak dituzte oraindik: lanean aritzea gune bat sortzeko, bertan, emakumeak elkarrekin harremanetan jartzeko, beraien kezkek eta gaitasunak partekatzeke eta ikasteko, eta genero-arloko bereizkeriarik gabeko gizarte baten alde borrokatzeko.

**G/ Hasi al zarete zuen 25. urteurrena ospatzeko ekitaldiak prestatzen?**

*E/ Muskizko Emakumeen Elkarteak 350 bazkide inguru gaude, eta denok batera ospatu,*

*“Gizartea asko aldatu da 25 urte hauetan, baina helburu berberak ditugu*

*eta 25 urteko ibilaldi honen balantzea egin nahi dugu. Alde ludikoa ere landuko dugu, esate baterako, senidetasuneko bazkaria egongo da, eta ustekabeko proiekturen bat ere bai, horretan ari baikara ahaleginean.*

**G/ Zertan ari zarete lanean orain? Zein dira zuen Elkartearen helburuak?**

*E/ Gure helburuak ez dira aldatu Muskizko Emakumeen Elkarteak sortu genuenetik. Garai berrietara egokitu behar izan dugu, baina lehen bezala jarraitzen dugu lanean, genero aldeko bereizkeria ezabatu nahian, eta emakumeei ikasteko eta gauzak partekatzeke gune egoki bat eskaini nahian. Zorionez, jasotzen ditugun diru-laguntzen eta laguntzen aurrekontuko murrizketak -publikoak zein pribatuak- ez dira hain larriak izan.*

**G/ Zer uste duzue emakumeen asoziazionismoari buruz? Lagungarriak al dira talde horiek? Edo oraindik bizirik da goen 80ko hamarkadako moda bat besterik ez al dira?**

*E/ Gure ustez, emakumeen asoziazionismoak garrantzi handia du oraindik emakume askorentzat. Egia da gizartea eta gure bizitza arras aldatu direla Elkarteak sortu zenetik hona. Hala ere, gure iritziz, guk egiten dugun lana oso garrantzitsua da, udalerriko errealitate guztietara zabalik gaudelako. Esate baterako, Instituzioen arteko Jarduera eta Koordinazioko Tokiko I. Protokoloa prestatzeko lanetan parte hartu dugu, indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeei laguntza hobea emateko.*

## Erabat berriak diren bi lehiaketa, Gaztegunearen jardueraprogramaren ardatz

Gaztegunearen jardueraprograman, erabat berriak diren bi jarduerak egongo dira udaberriko hil hauetan: Film Laburren I. Lehiaketa eta 2014ko San Joan jaietako programaren azala hautatzeko lehiaketa.

Film Laburren I. Lehiaketan parte hartu nahi duten 12 eta 25 urte arteko nerabeek maiatzaren 16a baino lehen aurkeztu behar dira, DIN A3 tamainako kartoi mehean eta formatu bertikalean. Parte-hartzaile bakoitzak argitaratu gabeko lan bat baino ez du aurkeztuko, eta gaia askea izango da. Irabazleak jai-esparruko barraketako fitxer bateriko kutxa bat jasoko du, 200 euroko baliokoa. Horrez gain, bi accesit sarituko dira, fitxer bateriko beste bi kutxekin -50 euroko baliokoa bakoitza-.

Bestetik, 6 eta 12 urte arteko haurrek San Joan jaietako programaren azala hautatzeko lehiaketan parte hartu ahal izango dute. Ekimen horren bidez, Udalak lortu nahi du haurrik txikienek ere zaindariaren jaietako ospakizunetan parte har dezaten. Lanak maiatzaren 14a baino lehen aurkeztu behar dira, DIN A3 tamainako kartoi mehean eta formatu bertikalean. Parte-hartzaile bakoitzak argitaratu gabeko lan bat baino ez du aurkeztuko, eta gaia askea izango da. Irabazleak jai-esparruko barraketako fitxer bateriko kutxa bat jasoko du, 200 euroko baliokoa. Horrez gain, bi accesit sarituko dira, fitxer bateriko beste bi kutxekin -50 euroko baliokoa bakoitza-.

**FILM LABURREKO I. LEHIAKETA**  
**I. CONCURSO DE CORTOS**

**GAZTEGUNE MUSKIZ**

*Yo en mi tiempo libre...  
Ni neure denbora librean...*

Comienzo del concurso/Lehiaketaren hasiera:  
17 marzo de 2014 / 2014 ko martxoak 17

Fin del concurso/Lehiaketaren amaiera:  
16 de mayo de 2014/2014 ko maiatzak 16

1. Categoría/maila  
12 - 17 años/urte  
1. Premio/saria: Mobil Libre  
2. Premio/saria: Tablet 7"  
3. Premio/saria: MP3 tactil

2. Categoría/maila  
18 - 25 años/urte  
1. Premio/saria: 200 €  
2. Premio/saria: 150 €  
3. Premio/saria: 100 €

www.muskizkogaztegunea.blogspot.com y en el código QR

MUSKIZ GAZTEA

GAZTEGUNE MUSKIZ

SEFA DFE